

Araba ESIko kode etikoa



Osakidetza

ARABA ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA ARABA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD

Aurkibidea

Sarrera eta oinarriak	3
Pazienteekiko konpromisoa	4
Pazienteen konpromisoa	5
Profesionalekiko konpromisoa	6
Profesionalen konpromisoa	8
Gizartearekiko konpromisoa	9



Lan hau Creative Commons lizentzia batekin argitaratzen da, baldintza hauekin:

- © Libreki heda daiteke
- Ⓢ Lan eratorriak baimenduta daude
- ℹ Jatorrizko jabetza aitortu beharrezkoa da
- Ⓢ Eratorriek erabilera ez-komertzialetarako izan behar dute
- Ⓢ Eratorriak parteka daitezke, baina lizentzia bera erabilita

Informazio gehiago eta lizentzia osoa: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/deed.es>

Sarrera eta oinarriak

Kode Etiko hau da Osakidetzaren baitan dagoen **Araba Erakunde Sanitario Integratuaren (Araba ESI)** bikaintasuna sustatzen duen jokabide gida.

Kalitate asistentzialaren etengabeko hobekuntzarako instrumentu praktikoa da. Osagarriak gehitzea da kontua, ingurune sanitarioan sor daitezkeen gatazkak askatzea eta erabakiak hartzea erraztuko dizkigutenak.

Dokumentu honetan aurkezten den kode etikoa oinarritzen da talde lanaren, eraginkortasunaren, gizatasunaren eta profesionaltasunaren balioetan¹.

Kode hau organizazio sanitario publiko baten helburuen baitan kokatzen da. Honako hauetan:

- Osasuna sustatzea eta gaixotasunei aurrea hartzea.
- Gaixo dauden pertsonen osasuna eta osatuak izan ezin direnak.
- Minaren arintzea eta gaixotasunak sortutako oinazea.
- Heriotza goiztiarra saihestu eta heriotza duinaz baliatu.

Kode honek dituen proposamenak Bioetika klinikoaren oinarritzko printzipioan oinarrituta dago:

- Autonomia, onartzea pertsonak duten eskubidea eragiten dion horrengan erabakitzeko.
- Ongintza, ongizate onena lortu, pertsonaren ongizate irizpidearen arabera.
- Kalterik ez egin, minik ez egin, praktika profesional bidezkoa egin.
- Justizia, ekitatea pertsonarekin tratuan, aurreiritzirik eta bazterketarik gabe.

Dokumentu honek indarrean dagoen araudia du kontutan eta Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren egiturari kokatzen da, 1948, lehendabiziko artikuluan: “*Gizaki oro jaiotzen da libre eta berdina duintasunez eta eskubideetan...*”. Kode honek egiten duen proposamena, halaber, lerrokatuta dago pertsonen eskubide eta betebeharren Aitortzarekin Euskadiko sistema sanitarioan, Plan Estrategiko eta Araba ESIko misio, bisio eta balioak.

¹ 2017ko otsailaren 20 eta 24an egin zen parte hartze prozesuan (World Kafea) lehenetsitako balioak. Bertan Araba ESIko 150 profesional eta erabiltzailek parte hartu zuten, perfil ezberdinak (diziplina, jardueraren eremu, hirugarren sektore, herritar, eragile sozial eta beste erakunde publiko batzuk).

1

Pazienteekiko konpromisoa

1.1

Paziente guztiak berdin hartuko dira. Bide batez, tratu bera ziurtatu beharko da, euren behar eta egoeratarako egokitua, eta bereziki pertsona kalte berenak hartuko dira aintzat, horretarako ekitatearen balioan sostengatuko dira.

1.2

Pazienteak gizatasunez hartu, **zuzentasunez eta sentiberatasunez**, errespetuz, enpatiaz, apaltasunez bai pertsona bera baita bere egoera ere; pertsonen osasun eskarmentuan garrantzitsuenak diren uneak zainduta.

1.3

Pertsonaren **informazio konfidentzialtasuna** gorde eta ez eman hirugarren bati zure baimenik gabe. Galdetu nori informatu nahi zaion. Konfidentzialtasuna bermatzen ez den tokietan informazioa ematea ekidin.

1.4

Bere prozesu asistentzial osoan paziente bakoitzaren **intimitatea** errespetatu, intimitate hori bermatuko duten gune abegitsuak sortuaz.

1.5

Pertsonen **identifikazioa** erraztu, beste profesional batzuen aurrean aurkeztu, paziente eta honen familia aurrean, tratu atsegina eta hurbiltasuna erakutsiaz.

1.6

Pazienteari erabakietan **parte hartzeko eskubidea bermatu** behar zaio, bereziki **aurretiazko borondateei** dagokionez, hala nola **tratamenduari uko egiteko** eskubideari dagokionez. Sentiberatasun berezia izango dute txikiekin eta aniztasun funtzionala dutenekin eta euren arduradun edo tutoreekin batera aztertuko da euren iritzia.

1.7

Informatua izateko pertsonaren eskubidea bermatu, edozein prozedura terapeutiko edo diagnostiko ezarri aurretik, **baimen-informatua**.

1.8

Araba ESIk dituen zerbitzuen inguruan erabiltzaileak egoki informatu euren **kexak eta iradokizunak** hartu, hobekuntza asistentzialaren aukera moduan, ez bakarrik Pazienteak eta Erabiltzaileak atenditzeko Zerbitzutik (PEAZ), baizik eta profesionalen partetik ere, modu indibidualizatuan zein baterako hausnarketa moduan taldean.

1.9

Pazienteen eta euren familiarren esku jarriko ditugu, **izaera etikoa duten galderak** Araba ESIko Etika Asistentzialeko Batzordera zuzentzeko aukera.

2

Pazienteen konpromisoa

2.1

Beste erabiltzaile batzuk errespetatu, paziente edo haien familiak, zaintzaileak eta laguntzaileak.

2.2

Erakunde sanitarioarekin kolaboratu, lan asistentzialaren martxa onean.

2.3

Erakundearen euren zerbitzuak eskaintzen dituzten **profesionalak errespetuz tratatu**, erraztu guztiek euren lan asistentziala gara dezaten, hala nola ekipamendu eta eraikinen erabilera egin dezaten.

2.4

Haren osasunari eta hari lotutako beharrei buruzko **egiazko informazioa** eskaini.

Profesionalekiko konpromisoa

3.1

Baliabide egokiak eskaini, profesionalek euren jarduera modu egokian aukera dezaten, pertsonarekiko errespetu irizpideekin, modu integralean gaixotasunaren garapen ebolutiboa dirauen bitartean.

3.2

Erantzukizuna, konpromisoa eta autokritika sustatu euren gaitasunen jardunean, erakundeko langile guztiengan.

3.3

Langileen artean **konfiantza, errekonozimendua eta errespetua sustatu**, gatazka saiheste aldera, tratu ez justua edo eta jazarpen laborala, horretarako guneak sortuz, dinamikak eta elkar ezagutzeko aukera, kokreazioa eta integrazioa.

3.4

Gatazkak konpontzera, kontraesanak, bat etorri ez edo zalantzak argitzera bideratutako neurriak sustatu eta formazio jarraian txertatu eta aholku organoak ezarri.

3.5

Lidergoa ereduak sustatu eta identifikatu autonomia bultzatuko dutenak, akordioa eta profesionalen arteko lankidetzak.

3.6

Intimitatea errespetatu eta langilearen izaera pertsonaleko informazioaren **konfidentzialtasuna** zaindu.

3.7

Kanal eraginkorrak ezarri **komunikazioa**, ezagutzaren zabalkuntza eta organizazioko maila eta profesional guztien arteko informazioa bermatzeko.

3.8

Hobekuntza, eraginkortasun asistentziala eta kalitatea bilatzeko ekimenei **laguntza eta indarra** eman, baita estrategia horietan profesionalak inplikatzeko ere.

3.9

Izaera independentea duten etengabeko formazio jarraiaren bidez profesionalen gaitasuna sustatu, baita kalitate bermea duten organoena, hala nola, ezagutza elkar banatzeko espazioak eta dinamikak sortu, bertan formazioa eta baloreen ezagutza txertatuz.

3.10

Lan giroa erraztuko duen giroa sortu eta profesionalen arteko errespetoa.

3.11

Integrazioa erraztuko duten metodologia sustatu, **ikerketa, berrikuntza eta teknologia berrien erabilera**.

3.12

Araba ESIko Etika Batzordera profesional guztien sarbide azkarra erraztu eta sustatu, sor daitezkeen **gatazka etikoen** inguruan galdetzeko.

3.13

Lanerako sarbidean **ekitate irizpideak** bermatu.

3.14

Lanean, **prebentzio eta osasun laboralaren** alorrean babes eraginkorra bermatu.

3.15

Profesionalen bizitza familiarra eta pertsonala errespetatu **kontziliazio neurriak** sustatuz, honen eta laneko erantzukizunen arteko oreka onena erraztuko dutenak.

4

Profesionalen konpromisoa

4.1

Segurtasun-klinikoa bermatzea prozesu asistentzialetan berezko segurtasun positiboa garatuz, hori lortzeko, intzidentziak komunikatuko dituzte prebentzio neurrien eraginkortasuna eta horri lotutako zigor-ekintzen gabezia oinarri dutelarik.

4.2

Erakundearen helburu, ikuspegi eta baloreekiko erantzukizun eta leialtasun eredu eskaintzea.

4.3

Lan zereginetan **ardura, konpromisoa eta autokritikarako** ahalmena erakustea. Hori lortzeko, ezagutza erabilgarriak hoberen erabili ez ezik herritarrak hornitzeko **zerbitzuen kalitatea hobetzea** ere izango dute helburu.

4.4

Berrikuntza ohiko praktika profesionalaren barne sartzea **aldian-aldiko ezagutzen egunerapena** eta trebetasun teknikoak helburu izanik, baita erakundean ezarri beharreko teknika eta teknologia berrien ikaste-prozesuarekiko jarrera proaktiboen bidez ere.

4.5

Lankideekiko errespetua, konfiantza, lankidetza eta begikotasuna izatea **talde-lana suspertuz**.

4.6

Ordutegien eta lanaldiaren erregimena betetzea Araba ESIko zerbitzuen eta zentroen funtzionamendua bermatze aldera.

4.7

Eskuragarri dauden baliabideak **begirunez eta eraginkortasunez** erabiltzea pazientearen onerako, horretarako, erabakiak zehaztasun eta irizpide zientifikoaren onenetan oinarritu behar dira.

4.8

Lanaren segurtasun eta osasunari buruzko arauak betetzea.

4.9

Erakundeko **pertsonen identifikazio egokian** laguntzea: ikusgai dauden txartelak, uniforme egokiak.

4.10

Informazio sistemetan eta historia klinikoetan **konfidentzialtasuna** bermatzea, hala, sarbiderako norbere gakoak ezkutuan gorde behar dira.

4.11

Pazienteei eta bere familiakoei jarraitu beharreko **prozesu eta iraupen**-denboraren inguruko **berri ematea**, era berean, planifikatuaz aparte eragin diezaketan aldaketak haiei helaraztea ere.

5

Gizartearekiko konpromisoa

- 5.1** Erakundeko kode etiko bat zehaztu, komunikatu eta eskuratzea profesionalek eta pazienteek konpartitzeko.
- 5.2** Pazienteari arreta emateko prozesu asistentzialak iraun bitartean **jarraipena eta koordinazio** asistentziala hobetzeko integrazioarako estrategia egokiak sustatzea.
- 5.3** Araba ESIko jarduera arriskutsuak aztertzea **eta jarduera seguruak** lortzeko ahaleginak behin eta berriro gauzatzea.
- 5.4** Norbanakoaren eta kolektiboaren **parte-hartze aktiboa** sustatzea eta bideratzea, auto-zainketaren eta auto-kudeaketaren bitartez, hezkuntza-programen eta pertsonak ahalduentzearen bidez.
- 5.5** Nabarmen uztea **hizkuntza-aniztasunarekiko konpromisoa**, halaber, norberaren hautaketaren arabera, pertsona guztiei euskaraz, gazteleraz edo beste hizkuntza edo komunikazio-modu batzuen bidez asistentzia sanitarioa bermatzeko ahaleginak egitea.
- 5.6** Osasun-arretaren kalitatearen etengabeko hobekuntza eta baliabideen zentzuzko erabilera sustatzea **efizientzia eta eraginkortasun** irizpidepean bidez, **sarbiderako ekitatea** bermatuta dagoela. Baliabideen erabilera salbatze aldera herritarren kontzientzia prozesuan erantzukizuna izatea.
- 5.7** Erakundeko jardueretikiko eta baliabideetikiko gardentasuna sustatzea baita haien erabilgarritasuna eta lortutako helburuak ere.
- 5.8** **Inguru eta ingurumenarekiko** errespetua sustatzea horretako, energiako aurrezpen eta hondakin-berziklapen politikak bultzatuko dituzte.
- 5.9** Arlo hauen egokitzapen etikoa zaintzea: publizitatea, merkaturatzea, praktika konpetitiboa eta hornitzaileekiko harremanen gardentasuna.
- 5.10** Paziente guztien arreta bermatzea dagokien kobertura-sistema aintzat hartu gabe.
- 5.11** **Ikerkuntza aurrerapen-iturri bat balitz** bezala sustatu eta zabaltzea; izan ere, herritarren arreta sanitarioa hobetzeko tresna izango da. Era berean, Ikerkuntzako Etika Batzorde Klinikoak (IEBK) arlo horretako proiektuen segurtasun eta egokitzapen etikoa bermatzeko ardura izango du.



Osakidetza

ARABA ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA ARABA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD